

QUART DE POBLETEN KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA BULTZATZEKO PROPOSAMENA

Posted on 04/03/2025 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Arrisku klimatikoa](#), [arintzea eta egokitzea](#), [Klima-arriskuen analisia](#)

Naider-ek proposamen bat aurkeztu du [Quart de Poblet](#) udalerrian, Valènciako metropoli-eremuan, klima-arriskuen analia eta klima-aldaletara egokitzeko estrategiak garatzeko. [CLIMAAX](#) metodologian oinarritutako proiektu honek aukera emango du azpiegiturari eta tokiko biztanleei eragiten dieten uholdeei, lehorteei, bero-boladei eta baso-suteei lotutako arriskuak modu integralean ebaluatzeko.

Azterlan hori aitzindaria da tokiko mailan, eta datu xehatuak eta testuinguruan kokatuak emango ditu, egokitzeko estrategia lokalizatu eta eraginkorrak garatzeko oinarri gisa. Gainera, biztanleriaren eta udalerriko funtsezko eragileen sentsibilizazioa sustatuko du, gizarte-kontzientzia eta konpromiso kolektiboa sustatuz, prebentzio-neurriak ezartzeko eta etorkizun erresilienteagoa eraikitzeke Quart de Pobletentzat.

